

Gure enpresak eskaintzen duen produktuak egunerokoa eta etorkizunekoa bateratzen du. Zaborra sailkatzen duen zakarrontzi bat ez da inoiz ikusi gaur egun arte. Bada horregatik, produktua aurrera eramateko **teknologiarekin zerikusia daukan jendearekin eta elkarteekin** bateratzea pentsatu dugu.

Guretzat oso garrantzitsua da produktu erakargarri bat izatea horregatik hasteko, zakarrontzia diseinatu behar dugu, eta horretarako **diseinatzaile** enpresa batekin kontaktatuko dugu eta hainbat zakarrontzi plantilla egitea eskatuko dizkiegu geroago haietariko bat hartzeko gure zakarrontzian erabiltzeko. Zakarrontziaren diseinuaiz gain, oso garrantzitsua da enpresa bakoitzak izen eta logotipo bat izatea, izenaren konturako, ez dugu elkarre baten laguntzarik behar gure artean pentsatuko dugulako, baina logotipoa egiteko aprobetxatuko dugu zakarrontziaren diseinuaren elkartearekin daukagun harreman onak haiek izateko gure logotipoaren sortzaileak eta diseinuarekin bezala, hainbat logotipo eskatuko dizkiegu haietariko bat aukeratzeko gurea izateko.

Lehen esan dugun bezala, gure zakarrontzia ez da beste zakarrontzi simple batzuk bezala izango, gurea teknologia aurreratu batean egongo da oinarrituta, horregatik, guk bakarrik ezin dugu hau egin eta beste elkarre batzuen laguntzaz baliatu egin beharko gara. Pentsatu dugu, hemen, **Bizkaiko ingeniarietza fakultatea** oso ona dela eta horregatik unibertsitateko karrera amaitzen ari diren ikasleak hauta ditzakegu gure enpresan praktika moduan lan egiteko soldata baten truke eta ondo egiten badute gure enpresan langile bezala gera daitezke. Guretzat ekimen hau oso garrantzitsua da zeren eta lan egiteko gaur egungo egoera ez baita egokiena eta horregatik unibertsitateko ikasleak hartuz, gure enpresak gora egingo du eta haien prestakuntza eta haiek ikasten ari direnari buruzko esperientzia maila gora egingo du ere.

Gure enpresa berria dela badakigu, eta normala denez, enpresa batek hasten denean oso zaila da aurrera egitea, baina gure ustez gure produktua oso ona denez eta batez ere inobatzailea gaur egungo sozietaterako, hainbat elkarteekin hitz egitea pentsatu dugu. Lehenengoz, enpresa txiki bat garenez, **ingurumenarekin kontzientziazatuta** dauden elkarteekin eskainiko diegu gure produktua eta horrela apurka-apurka izan daiteke produktua gora egitea eta ezagunagoa denean, **Bilboko Udalarekin** hitz egingo dugu ea gure produktua nahi duten eta horrela gure enpresa nazionalki zabalduko dugu eta baita ere ingurumenak eskertuko digu.

Bilboko Udalarekin hitz egin baino lehen gure produktua pixka bat zabaltzeko web orrialde bat egitea pentsatu dugu. Orrialde honetako helburua ez da izango saltzea, baizik eta produktua zabaltzea. Web orrialdea egiteko **informatiko** batekin hitz egingo dugu eta gure web-a egitea eskainiko diogu diru baten truke zeren eta ez dugu pertsona hau kontratatuko.

Produktua behin izanda, amaitzeko **abokatu** batekin elkartuko gara sortutako zakarrontzia legalki posiblea dela ziurtatzeko eta batez ere produktua patentatzeko produktu hau gurea bakarrik izateko.



Beste elkarte edo pertsona batekin egingo dugun azkenengo harremana **ekonomilari** batekin batzartuko gara eta gure produktua erakutsi eta azalduko diogu hark hura aztertzeke eta zakarrontziak izan behar duen prezio perfektua esateko.